

Euskararen aldeko Herribiltzaren ekintzen kronologia

2022/09/12

Herriko Etxeari eta Kontseilu Nagusiari gutun bat igorri, irailaren 3ko auzolanaren berri ematen diegu eta bilkura bat egitea proposatzen diegu berriz. Ez dugu erantzunik eskuratzen.

2022/09/08

Eusko Jaurlearitzak, Euskal Elkargoak eta Donibane Garaziko Herriko Etxeak Donibane Garazin antolatu duten Euskal Diasporaren Eguneko ekitaldian, erakunde hauek euskarari lehentasuna eta nagusitasuna ez diotela emaiten, eta ondorioz desagertzera kondenatzen dutela, salatu dugu eta euskal diasporari adierazpen bat egin diogu (ikus [hemen](#)).

2022/09/03

Donibane Garaziko beste sarrera batean, berriz auzolanari lotzen gatzazkio. Herriaren izenaren bide bazterreko taulak tokiz aldatu eta gainean euskarazkoa eta azpian frantsesezkoa ezartzen ditugu (askatasunez erabiltzen ahal diren ekintzaren argazkiak [hemen](#)).

Herriko Etxeak, auzolana geldiarazi nahian, hamar bat jendarme igortzen dizkigu. Jendarmeez auzolana gelditzea eskatzen digute eta mehatxatzen gaituzte, baina gure lana bururaino eramaten dugu.

2022/08/25

Herriko Etxeak taulak berriz tokiz aldatzen ditu, frantsesezko izena berriz gainean ezarriz eta euskarazkoa azpian.

2022/08/16

Herriko Etxeari eta Kontseilu Nagusiari gutun bat igorri, agorriaren 9ko auzolanaren berri ematen diegu eta bilkura bat egitea proposatzen diegu. Ez dugu erantzunik eskuratzen.

2022/08/09

Kontseilu Nagusia eta Herriko Etxea ez direnez gurekin harremanetan sartzeko, euskarari dagokion tokia emaiten auzolanari lotzen gatzazkio. Donibane Garaziko sarrera batean, herriaren izenaren bide bazterreko taulak tokiz aldatu eta gainean euskarazkoa eta azpian frantsesezkoa ezartzen ditugu (askatasunez erabiltzen ahal diren ekintzaren argazkiak [hemen](#)).

2022/06/19

Berriz ere Herriko Etxeari eta Kontseilu Nagusiari zuzentzen gatzazkie (igorritako gutuna eranskinetan ikus). Ez dugu erantzunik eskuratzen.

2022/06/03

« Euskararen erabilpena Garazi aldean, oraina eta etorkizuna » izenburupean, bilkura publikoa Donibane Garazin antolatzen dugu.

1989tik karriketan euskararen erabilpena neurtzen duen Soziolinguistika Klusterrak, maiatzaren 25ean 2021eko ikerketaren emaitzak argitaratu zituen: 2015ean %14,6koa zen Baxenabarren, 2021ean %10,5koa.

Donibane Garaziko Herriko Etxetik eta Pirinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusitik ez da bilkurara inor agertu.

2022/05/27

Berriz ere Kontseilu Nagusiko hautetsiei zuzentzen gatzazkie. Ez dugu erantzunik eskuratzen.

2022/03/19

Pirinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiari, Euskal Herriko bide departametaletako seinaleketan lehenik euskara erabiltzea eskatzen diogu, hau da seinaleketan gainean euskaraz eta azpian frantsesez idaztea.

Herrien izenei dagokienez, herrien izenaren ahozkerak euskaraz eta frantsesez berdina edo berdintsua delarik, bakarrik euskarazko idazkerak erabiltzea eskatzen diogu, eta ahozkerak edota izen ezberdinak direlarik, gainean euskarazkoa eta azpian frantsesezkoa ezartzea eskatzen diogu.

Ez dugu erantzunik eskuratzen.

Eranskinak

2022/06/19

Donibane Garaziko Herriko Etxeari eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari igorritako gutuna:

Euskaraz bizitzeko, lehenik eta nagusiki euskaraz !

Karriketan euskararen erabilpena neurtzen duen Soziolinguistika Klusterraren arabera, Ipar Euskal Herrian 1997tik erabilpenak beranzko joeran segitzen du.

Egoera larri honetan ondokoa adierazten dugu:

Euskal Herrian euskaraz bizitzeko posibilitatea ukan nahi dugu, hau da, gure eguneroko aktibitate guziak euskaraz egiteko posibilitatea ukan nahi dugu.

Hizkuntza batek, bizitzeko, lurralde bat nun lehentasunez eta nagusiki erabiltzen den behar du.

Munduko hizkuntza guziak maite ditugu. Euskara ez dakitenak, ikastera gomitatzen ditugu.

Ipar Euskal Herriko erakunde politiko, ekonomiko, sozial eta kultural gehienek, ez diote euskarari lehentasuna eta nagusitasuna emaiten, eta ondorioz hizkuntza hau heriotzara kondenatzen dute.

Ipar Euskal Herrian euskararen erabilpenaren etorkizuna bermatzeko, urrats berriak egin behar ditugu. Hori egitea eskatzen diegu Herriko Etxeei eta Pirinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Orokorrari (...).